

# Barrutik Barruti.

**BARRUTIK IRAULI** indarkeria matxisten aurrean jarduteko REAS Euskadiren protokoloa da. Erakundeak eraldatzeko gure prozesu feminista **BIZIGARRI**ren ekintzen barruan kokatzen da.

## Zertarako?



Diskriminazio-jazarpenari eta sexu-indarkeriei modu integralean heltzeko esparru bat izateko.



Sexismoa, sexuan eta generoan oinarritutako diskriminazioak, eta indarkeria matxista eta sexualak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.



Lan-ingurunean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat izateko legezko betebeharrari erantzuteko.

## Zer eskaintzen dizu?



Xedetzat hedapena, prebentzioa eta detekzio goiztiarra dituzten ekintzak. Indarkeria matxisten inguruan sentibilizatzeko eta prestatzeko aldizkako ekintzak.



Diskriminazio-, jazarpen- eta indarkeria-jokabideen aurrean jarduteko prozedura bat. Bitarteko hauek ditu:

- Aholkularitza konfidentziala, biktimak babesteko eta defendatzeko.
- Emakumezko adituen kanpo-batzorde bat, kasu larriak ikertzeaz arduratzen dena.



Erreparazio-neurriak.

## Zer eskatzen dizu?



Konpromiso-agiria sinatzeko eta erreferentziatzeko pertsona bat izendatzeko.



Prestakuntza- eta sentibilizazio-ekintzetan parte hartzeko.



Prozedura aktibatzearen ondoriozko kautelazko neurriak eta azken neurriak hartzeko.



Ikerketa Batzordea finantzatzen eta/edo biktima erreparatzeko neurriak hartzen laguntzeko, baldin eta zure erakundeko norbait zuzenean inplikaturik badago.

## Nola egin dezaket bat?

Sinatu atxikitzeko konpromisoa eta bidali [reaseuskadi@reaseuskadi.eus](mailto:reaseuskadi@reaseuskadi.eus) helbidera, zure erakundearen protokolo horretarako dagoen erreferentziatzeko pertsonaren izenarekin eta harremanetarako datuekin batera.

